

**LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA**

757

26/2005 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Izkiko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailearen zati arautzailea onartzen duen Dekretua aldatzeko dena.

Martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez, Izki Aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi zen. Martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren bidez, Izki Alde hori parke natural deklaratu zen. Urriaren 10eko 200/2000 Dekretuaren bidez, Izkiko Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako plan zuzentzailearen zati arautzailea onartu eta osorik argitaratzeko agindua eman zen.

Izkiko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailearen 4.2.2.2. artikuluan usoaren ehiza arautu zen. Hala ere, artikulua hori aldatzeko komenigarria iritzi zaio, ehizatze postuen txaboletan sua erabiltzeko modua arautu ahal izateko.

Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean ezarritakoarekin bat etorri, honakoa izan da aldaketa onartzeko jarraitutako prozedura: lehenengo eta behin, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, Parke Naturalaren Patronatuak eskatuta, hasierako agiria prestatu zuen.

Geroago, toki-erakunde txikiei, eskualdeko interes sozialak ordezkaritza diren elkartei eta Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Batzordeari aldaketa-proposamenaren gaineko irizpena emateko eta Parke Naturalaren Patronatuari proposamena onartzeko eskatu zitzaizkien. Arabako Foru-Aldundiak, bere aldetik, hasierako onarpena eman zuen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru-Aldundian hirigintza-arloan aginpidea duten organoek irizpen-txostena eman zuten. Arabako Foru-Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onarpena eman zion aldaketa-proposamenari eta, horren ostean, Euskal Herriko Ingurumen-Batzordeari eta Landaberriri proposamenaren gaineko irizpena eskatu zitzaizkien.

Guzti horren ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Batzordeak 2005eko otsailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Aldatu egiten da Izkiko Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako plan zuzentzailearen zati arautzailea onartzen duen urriaren 10eko 200/2000 Dekretuaren 4.2.2.2. artikulua, aurrerantzean honela geratuko dela idatzita:

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE**

757

DECRETO 26/2005, de 8 de febrero, de modificación del Decreto por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Izki.

Mediante Decreto 64/1998, de 31 de marzo, se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Izki, declarándose esta zona Parque Natural por Decreto 65/1998, de 31 de marzo, por el que se declara Parque Natural el área de Izki. El PRUG se aprueba mediante el Decreto 200/2000, de 10 de octubre, por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Izki y se ordena su publicación íntegra.

En el artículo 4.2.2.2 del PRUG de Izki se regula la caza de la paloma. Se ha visto la conveniencia de su modificación, con el objetivo de regular el ejercicio del uso del fuego en las chozas de los puestos de caza.

El procedimiento seguido para la aprobación de la modificación, en concordancia con lo dispuesto en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, ha consistido en la elaboración del documento inicial por el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, a instancia del Patronato del Parque Natural.

La propuesta de modificación se sometió a informe de las entidades locales menores, las asociaciones representativas de los intereses sociales de la zona, el Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y aprobación del Patronato del Parque Natural y fue aprobada inicialmente por la Diputación Foral de Álava. Con posterioridad, fue emitido informe por los órganos competentes en materia urbanística del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Álava. Seguidamente el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava aprobó definitivamente la propuesta de modificación y fue sometida a informe de la Comisión Ambiental de País Vasco y de Landaberri.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 8 de febrero de 2005,

DISPONGO:

Artículo único.— Se modifica el artículo 4.2.2.2 del Decreto 200/2000, de 10 de octubre, por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Izki, que queda redactado como sigue:

«4.2.2.2.– Usoa.

Ehiza-postu finkoek Nekazaritza Sailaren baimena behar dute.

Zuhaitzak inausteko, eta, oro har, jarduera behar bezala garatzeko behar den beste edozein inguru-aldaketaren bat egiteko, dagokion baso-agintaritzaren baimena behar da.

Debekatutako dago edozein hondakin edo zarama uztea eta, berariaz, kartutxoak.

Usoa ehizatzeko aldian bakar-bakarrik erabili ahal izango da sua txaboletan eta txabolaren esleipendunek baino ezin izango dute erabili. Esleipendunek, ehizaldia amaitu ondoren, sua egiteko erabilitako dispositiboak edo ontziak kendu beharko dituzte.

Parkea Kudeatzeko Organoak zehaztuko du txaboletan sua egiteko erabili beharreko tresna edo ontzia. Erabilitakoa dena dela, ez da inoiz iraunkorra izango.

Debekatuta dago Parke Naturala Kudeatzeko Organoak berariaz baimendu ez duen beste edozein dispositibo erabiltzea.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

«4.2.2.2.– Paloma.

Los puestos de caza a parado deberán estar autorizados por el Departamento de Agricultura.

Las podas del arbolado y, en general, cualquier modificación del medio que sea necesaria para el correcto desarrollo de la actividad deberá contar con autorización de la autoridad forestal correspondiente.

Se prohíbe el abandono de cualquier tipo de residuo o basura y, específicamente, de cartuchos.

La utilización de fuego en las chozas se podrá realizar única y exclusivamente en la temporada de caza de la paloma y por el/los adjudicatario/s de las chozas, siendo estos últimos los responsables de la retirada de los dispositivos o recipientes utilizados para tal fin una vez concluida la temporada.

El Órgano Gestor del Parque determinará el utensilio o recipiente autorizado para la realización del fuego en las chozas, que será siempre de carácter no permanente.

Queda prohibida la utilización de cualquier otro dispositivo no autorizado expresamente por el Órgano Gestor del Parque Natural».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.